

**2009KO MAIATZAREN 14N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamalaua

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA:

- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko apirilaren 2an eta maiatzaren 4an egindako ohiko eta aparteko batzaraldietako aktak hurrenez hurren onartzeko proposamena.

Julio Herreros jaunak ez du 2009ko apirilaren 2ko akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu zuelako. Aldiz, 2009ko maiatzaren 4ko akta onartu egiten du. Beste guztiek, proposamenarekiko adostasuna azaldu dute eta horren ondorioz bi aktak onartuta gelditu dira.

2.- XEHETASUN AZTERLANA. 29. Areako 29.3 orubeari buruzko Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.

Aitor Aldasoro hirigintzako batzordeburuak, ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 29. Areako 29.3 orubearen Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

AURREKARIAK

2009ko martxoaren 23ko datarekin Alkateak 29. Areako 29.3 orubearen Xehetasun Azterlanari hasierako onespina eman zion eta jendaurrean jarri zuen GAOean, Diario Vascon eta Berrian iragarkiak argitaratuz 2009ko apirilaren 17an, martxoaren 28an eta 24an hurrenez hurren eta alegazioak aurkezteko hogeitaz laneguneko epean ez zen inolakorik aurkeztu.

Horren ondorioz, batzorde honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 29. Areako 29.3 orubearen Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea eta GAOean behin betiko onespinen erabakia argitaratzea.argitaratzea.”

Une honetan sartu da batzarraldira, M^a Pilar Vispo Chamosa.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- CAF HIRI ANTOLAKUNTZAKO EGITASMO BEREZIA. Behin betiko onespina.

Aitor Aldasoro hirigintzako batzordeburuak, ondorengo proposamenaren berri eman du:

“2009ko martxoaren 13an, CAF, 6. Arearen Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari hasierako onespina eman zitzaion, Alkatearen Ebazpenaren bidez eta jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean,

Diario Vascon eta Berrian, 2009ko martxoaren 27an, 21ean eta 28an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Epe horretan, hiru alegazio aurkeztu dira, hain zuzen ere, Lazkaoko Udalarenak, CAF enpresarenak eta ADIFenak.

Lazkaoko udalak dio hasierako onarpena jaso duen H.A.P.B.-ak jasotzen duen zedarritapenak, 1941. urtean egindako udalerrien arteko mugatze akta eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde-Plangintza Zerbitzuak idatzitako "Beasain eta Lazkao arteko mugako linearen azterketa" izeneko dokumentuareb arabera, Lazkakoko udalerrian kokatutako lursail zatiak "inbaditzen" dituela. H.A.P.B.aren zedarriztapena aldatzea eskatzen du, aipatu azterketaren arabera.

CAF-eko ordezkariak 2.2 eta 3.1 azpipartzelen gehienezko lerrokadurak aldatzea proposatzen du, CAFek bertan egin asmo dituen eraikinen eskakizunetara egokituz. Honek oin plantaren formaren aldaketa suposatzen badu ere, ez du azpipartzela hauen eraikigarritasunetan (3.800 m² eta 10.200 m²) aldaketarik suposatzen. Azpipartzelen planu eraldatuak aurkezten ditu.

ADIF-en ordezkariak, ADIFen Ondasun eta Higiezin Inbentario Orokorren arabera, enpresa erakunde publiko hau 6. Eremuko (CAF) 12.920 m²-ko lursail baten titularra dela adierazten du, H.A.P.B.-ak 7.490,60 m² dituela esaten duen bitartean. H.A.P.B.-a aldatzea eskatzen du, eremuan ADIF-ek duen azalera 12.920 m² dela zehaztuz.

Bestalde dio, Adif-en azalera bezala onartzen dena, Trenbide Sistema Orokor bezala agertzen dela; Adif-enak bezala onartzen ez direnak berriz Bidesare Sistema Lokal eta Jarduera Ekonomiko bezala agertzen direlarik.

Trenbide Sistema Orokor bezala kalifikatutako lursailak bere horretan mantentzea eskatzen du. Honetaz gain, Adifenak bezala onartu ez diren eta Bidesare Sistema Lokal bezala agertzen diren lursailak, Adifenak bezala onartuak izan eta Udaletxeari lagapenezko lursail bezala agertzea eskatzen du; bai eta Adifenak bezala onartu ez diren eta Jarduera Ekonomiko bezala agertzen diren lursailak, Adifenak bezala onartu eta Trenbide Sistema Orokor bezala agetu daitezela.

Azkenik trenbidearen plataformaren kanpoko ertzetik 20 metro baino gutxiagora dauden eraikin batzu proposatzen direla agertzen du. Indarrean dagoen legediaren arabera, aurretik ADIFen aurrean interesatuak eskaera egin eta dagokion administrazio expedientearen tramitazioa jarraitu beharko da, enpresa entitate publiko honen aldeko txostena jaso beharko delarik.

Jabetza eta babes lekuetan trenbiderako (8 eta 70 m) aurreikusitako obrak gauzatzeko ADIFen baimena behar dela adierazten delarik.

2009ko maiatzaren 11n, alegazioei buruz ondorengo txosten teknikoa eman da:

Lehenengo Alegazioa (Lazkao Udala)

Udalerriaren zedarriztapenaren ezarpena ez da tramitatzen ari den Plan Bereziaren eskumena, zeinak indarrean dauden Beasaingo Planeamenduko AA.SS.an agertzen dena eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak markatzen duena agertzen du.

Gaur egun Lazkao eta Beasaingo udalherrien deslinderako prozedura administratiboa hasia dago, egun dauden ezadostasunak argitu asmoz.

Guzti hori dela eta, **alegazioa atzera botatzea** proposatzen dut, ofizialki Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako udalherriaren muga mantenduz. Hasitako prozedura administratiboaren ondorioz, zedarriztapen hau zuzendua izango balutz, H.A.P.B.a aldatu beharko da, zedarriztapen ofizial berrira egokituz.

Bigarren Alegazioa (Juan Gastesi Iriarte, CAF):

2.2 Azpipartzelaren kasuan, planteatzen den aldaketak GI-4491 errepiderainoko distantzian eragiten du (Sare Lokaleko Errepidea –sare grisa)-Proposatutako gehienezko okupazio berriak, eraikuntza eta bidesarearen arteko distantzia 5m.tik 4.5 m.ra gutxitzen du.

Gipuzkoako Errepide eta Bideen Arau Foralaren arabera, Lurzoru Hiritarrean, errepideari dagozkienak baino distantzia txikiagoak dituzten eraikuntzak onartu ahal izango dira (kasu honetan 12 m), betiere aurretik existitzen diren eraikinen lerrokadurek hori justifikatzen badute. Kasu honetan, gaur egungo eraikinek 5 metroko distantzia izanik, mantendu beharko den distantzia hori bera izan beharko du.

Trenari dagokionean, Trenbide Araudiaren arabera, eraikuntzaren gehienezko muga (kasu honetan 20 metro, zona hiritarrean) gutxitu daiteke, Trenbide Azpiegituren Administrazioaren aldeko txostena izanik betiere, honek, hiri-antolamenduaren hobekuntza suposatuko balu. Proposatzen den gainerako eraikigarritasuna, trenbidetik 5 metroko distantziara egonik, mantendu beharko den distantzia hori bera izan beharko du.

Guzti honi, 2.2 azpipartzelan planteatzen den bulegoetarako eraikuntzaren tipologiaren flexibilitate eta malgutasuna batu behar zaio. Hori dela eta, gehienezko okupazioa mantendu egin beharko da.

3.1 apipartzelan berriz, okupazio berriak ez du eraginik errepiderainoko distantzian eta trenbiderainoko distantzia, aurretik partzelan zegoen

eraikinaren antzerakoa da. Proposatutako lantegi berriaren beharrianak kontutan izanik, 3.1 azpipartzelaren gehieneko okupazioa aldatu daitekelarik erizten diot, alegazioan agertzen diren baldintzetan.

Hori dela eta, alegazioa partzialki onartzea proposatzen dut, 2.2 azpipartzelaren gehieneko okupazioa mantenduz, Hasierako Onarpenean agertzen den moduan, eta 3.1 azpipartzelaren gehieneko okupazioa aldatuz, alegazioan agertzen den baldintzetan.

3. Alegazioa (Luis Angel Tarrero Balbas, ADIF):

ADIFen jabego diren lursailen azalerari dagokionean, lur-jabetzaren egituraren titulartasuna agertzen dutenak gestio dokumentuak dira. Honela ba, Birpartzelazio Proiektuak adieraziko balu azalera hauen Titulartasuna ADIFena dela, Plan Bereziaren zuzenketa egin beharko da.

Hirugarren alegazioari dagokio, eraikuntza proposamen berri gehienak Jabari publiko eta trenbidearen babes lerroaren (8m. eta 70m.) barnean egonik, Plan Bereziak eraikuntza proposamen berri hauek indarrean dagoen Trenbide Sektoreko araudiaren arabera Trenbide Azpiegituraren Administrazioak onartu beharko dituela adierazi beharko du.

Horren ondorioz, zera proposatzen da:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea, sentzu honetan: Lazkaoko Udalaren alegazioa ez da onartzen eta CAF expresaren eta ADIFenak txosten teknikoaren arabera, partzialki onartzen dira, hau da, 5, 6, 7.3 eta 7. Gplanoak aldatu egin beharko dira eta jabari publiko eta trenbidearen babes lerroan egin beharreko eraikuntza lanetarako ADIFen oniritzia beharrezkoa izango dela adierazi beharko da.

Bigarren. CAF, 6. Areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onespena ematea lehen puntuan aipatutako baldintzekin.

Hirugarren. Aipatutako Hiri Antolamenduko Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PP, EB eta EAko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no vamos a apoyar. Cuando se nos presentó el documento para la aprobación inicial había un

informe que decía que de acuerdo a la Ley 11/2008, de 28 de noviembre, el documento no reflejaba el 15% de la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. También se indicaba que el documento no estaba visado y que había que corregir una serie de errores. No obstante, la comisión de urbanismo, con la abstención del partido socialista le dió el visto bueno con la condición de que para la aprobación definitiva se presentara el documento corregido. Llegamos a la aprobación definitiva, y se nos dijo que esas correcciones no se habían presentado para la aprobación definitiva. No nos parece que es el procedimiento correcto. Para la construcción de las viviendas, sabemos que hay un plazo determinado por ley y ahí creemos que si se puede actuar con mayor flexibilidad, pensamos que en las actuaciones que se están haciendo en CAF, no tienen la urgencia como para no exigir que la documentación se presente completa y bien. No sólo eso, sino que también señalar que ha habido tres alegaciones. Una de ellas del Ayuntamiento de Lazkao, con el que tenemos un litigio de lindes por la desaparición de algunos mojones. En la reunión que recientemente hemos tenido entre las tres comisiones creadas para dirimir este tema, se nos planteó que sería más prudente esperar a realizar el reconocimiento de mojones, ya que de lo contrario podríamos estar actuando sobre terrenos que no pertenecen a nuestro municipio y ello nos obligaría a tener que modificar lo que ahora se pretende aprobar definitivamente. Pensamos que se deben de cumplir todos los trámites para tener claro cual es nuestro ámbito y además creemos que la documentación debe presentarse correctamente. Si no es así, nosotros nos vamos a abstener.”

Aitor Aldasoro (EAJ) jaunak: “Respecto al 15% está claro que lo que se aprueba es con esa cantidad. En cuanto a las alegaciones del Ayuntamiento de Lazkao, lo único que hacemos nosotros, y así lo indica el informe técnico, es que se reconoce que en la actualidad se ha incoado el procedimiento administrativo de deslinde de los términos municipales, pero se desestima porque el límite del PEOU, coincide con el límite de las NN SS, que es el reconocido por la Diputación Foral. Si hubiera un cambio en la delimitación, el PEOU se tendrá que ajustar. Mientras no se modifique lo que no podemos hacer paralizar la aprobación de los documentos de planeamiento. Cuando Lazkao demuestre que esos límites son los que ellos aducen, Diputación dirá que se modifiquen. Mientras tanto, tenemos que seguir trabajando con lo que tenemos”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, EA, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, legeak ezartzen duen quorumarekin onartu egin da proposamena.

4.- ARAUDIA. Egoitza eta erregistro elektronikoa sortu eta arautzen duen erregelamenduari hasierako onespina ematea.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

“Gaia: egoitza eta erregistro elektronikoa sortu eta arautzen duen erregelamenduari hasierako onespina ematea.

Egoitza eta erregistro elektronikoa sortu eta arautzen duen erregelamenduaren Testua aztertu ondoren, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako erregelamenduari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Hogeita hamar laneguneko epean jendaurrean jartzea, probintziako aldizkari ofizialean iragarkia argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hiz egiteko txanda eman ondoren, PP, EB eta EAK proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE) jaunak: “yo quería preguntar si el desarrollo de todo el sistema se va a hacer a través de IFZE o a través de una empresa privada.”

Alkate (EAJ) jaunak: “Aquí estamos con IFZE, aunque hay elementos colaterales y específicos del Ayuntamiento de Beasain que se desarrollan a través de empresas privadas, pero normalmente utilizamos la plataforma de IFZE.”

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nos parece más prudente utilizar un sistema que es de Diputación para todos los Ayuntamientos y que garantice la seguridad del sistema. Estamos de acuerdo.”

Bozketa eginda, aho batez, hasierako onespina eman zaio araudi honi:

“ERREGELAMENDUA, BEASAINGO UDALAREN EGOITZA ETA ERREGISTRO ELEKTRONIKOA SORTU ETA ARAUTZEN DUENA

Zioen azalpena

Informazioaren teknologia berriak gero eta hedatuago daude bizitzako eremu guztietan. Hori horrela, beharrezkoa da administrazio elektronikoa hiritarrei hurbiltzea, gestioak errazago egin ditzaten, udal bulegoetan agertu beharrik gabe.

XXI. mendeko erronka teknologikoen mailan egon nahi duen administrazio batek komunikazio elektronikoen erabilera sustatu behar du; aurrerapen eta nobedade teknologikoak ipini behar ditu, bere tramite eta prozeduretan, hiritarrei eskaintzen dien zerbitzuetan ahalik eta eraginkortasunik handiena eskaintzeko.

Toki administrazioaren ardura da, bere hiritarrei dagokienez, konfiantza eta segurtasuna sortzea, tramitazio elektronikoen erabileran, dauden aurrerapen

teknologikoak haien zerbitzura jarritz. Azken baten, administrazioaren ardura da gestio presentzialaren eta elektronikoaren arteko bidea murriztea eta gure ardura da hiritarren eta administrazio orokorraren eta, batez ere, toki administrazioaren artean dagoen hesia murriztea.

Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezartzen du 2009ko abenduaren 31tik aurrera toki administrazioek hiritarrei aukera eman behar dietela legeak berak aitortutako eskubide hauek bitarteko elektronikoez erabiltzeko:

1. Administrazioarekin harremanetan jartzeko bidea aukeratzea.
2. Administrazioak dituen datuak eta dokumentuak ez ematea.
3. Berdintasuna zerbitzuak bitarteko elektronikoez eskuratzekoan.
4. Interesatuak diren prozedurak zein tramitetan dauden ezagutzea.
5. Dokumentuen kopia elektronikoak lortzea.
6. Espedientea osatzen duten dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea.
7. Identifikazio elektronikorako behar diren bitartekoak lortzea, eta pertsona fisikoek Nortasun Agiri Nazionalaren sinadura elektronikoa erabili ahal izango dute, edozein administrazioarekin edozein tramite elektroniko egiteko.
8. Sinadura elektronikorako beste sistema batzuk erabiltzea.
9. Segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzea.
10. Bitarteko elektronikoen bidez emandako zerbitzu publikoen kalitatea.
11. Administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzea, estandar irekiak erabiltzen diren kasuetan.

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua

Araudi honen helburua da Beasaingo Udalarekin lotutako egoitza elektronikoa, erregistro elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa eta ziurtagiri eta transmisio elektronikoa arautzea, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 24, 25, 26, 27 eta 28. artikuluen arabera eta Zergei buruzko abenduaren 28ko 230/1963 Lege Orokorreko 105. artikuluko 3 eta 8. atalen arabera.

Araudi honetan ezarritakoak ez du aldatzen jarduera administratiboei aplika dakiekeen erregimen juridikoa, tramitazio elektronikoi dagozkion zehaztapenak izan ezik.

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuetan, otsailaren 21eko 209/2003 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da. Dekretu horren bidez, erregistro eta jakinarazpen elektronikoa arautzen dira, eta baita bitarteko elektronikoaren erabilera ere, hiritarrek ziurtagiriak ematera udal bulegoetan agertu gabe.

2. artikulua. Prozeduraren alderdi orokorrak

Araudi honetan aurreikusitako tramiteetan bitarteko elektronikoa erabilita, bermatua dago eskumena erabiltzen duen organoa identifikatzea eta eskumena erabiltzea, eta baita ere, emandako dokumentuen autentikotasuna, integrazioa eta kontserbazioa, Araudi honetan ezarritakoaren arabera.

Tramitazio elektronikoan, aitortutako sinadura elektronikoa erabiliko da.

Aplikazio informatikoaren erabilerari dagokionez, hau bermatu behar da:

- a) Horietan jasotako datuak eta informazioak pertsona baimenduak bakarrik eskuratzea eta erabiltzea.
- b) Aldaketa edo galerak prebenitzea, datuetan eta informazioetan eta komunikazioen interpretazioetan.
- c) Prozesu informatikoak manipulazio ez baimenduetatik babestea.

3. artikulua. Tramitazio elektronikoa erabili ahal izatea. Egoitza elektronikoa.

- 1. Tramitazio elektronikoa egin nahi duten pertsonak ziurtagiri elektronikoa aitortua eduki beharko dute. Onartutako ziurtagiriak eta horien ezaugarriak www.beasain.net udal atarian argitaratuko dira.
- 2. Hiritarrak Zerbitzu Publikoetara bitarteko elektronikoa bidez sartzeko ekainaren 22ko 11/07 Legeko 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Beasaingo Udalaren egoitza elektronikoa www.beasain.net web orria da. Bertatik, Beasaingo Udalak hiritarren eskura jartzen dituen tramitazio elektronikoko sistemetara sar daiteke.
- 3. Halaber, egoitza elektronikoen parte izango dira "beasain.net" eta "beasain.org" domeinuetan dauden web orriak, <http://www.beasain.net> orrian esteka espresua baldin badute.
- 4. Egoitza elektronikoen jardura eremuak Beasaingo Udala hartzen du, eta, baita ere, "Beasaingo Udal Euskaltegia", "Beasaingo Udal musika eskola" eta "Antzizar Udal Kiroldegia" udal fundazio publikoak edo etorkizunean eratu litezkeen beste batzuk.

4. artikulua. Kontsultak

Tramitazio elektronikoa egiteko erabiliko den aplikazio informatikoak pertsona interesatuei ahalbidetuko die horiek egindako tramiteak elektronikoki kontsultatzea erregistro elektronikoen beraren bitartez. Kontsulta hori "Bulego birtuala. Administrazio elektronikoa delakoaren bidez egingo da, www.beasain.net eta, horra sartzeko, sinadura elektronikoa aurreratua egiteko ziurtagiri digitala eduki behar da.

5. artikulua. Euskarri elektronikoen lehentasuna.

Baldin eta administrazio espedienteak tramitatzerakoan digitalki eta paperean sinatutako dokumentuak, idatziak edo komunikazioak jasotzen badira, horien bertsio elektronikoa bakarrik hartuko da kontutan.

6. artikulua. Datuak babestea

- 1. Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, tramiteetarako jasotako datu pertsonalak "Erregistro Orokorra" fitxategian sartuko dira.
- 2. Beasaingo Udala da fitxategiaren organo arduraduna eta Beasaingo udaletxean erabiliko dituzte interesatuek beren datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jotzeko eskubideak:

Beasaingo Udala

San Martin plaza z/g

20200 Beasain

II. KAPITULUA Erregistro elektronikoa

7. artikulua. Erregistro elektronikoa

Udaleko Erregistro Orokorren (dokumentuen Sarrera eta Irteera) lagungarri eta osagarri gisa, Beasaingo Udalak erregistro elektronikoa sortu du, eta erregistro horren funtzionamendua arautegi honetan arautzen da. Online erregistro informatikoa da, eta

egoitza elektronikoa argitaratzen diren prozedurei eta tramiteei dagozkien eskaerak, idatziak eta komunikazioak jaso eta bidaltzeko aukera eskaintzen du.

8. artikulua. Erregistro elektronikoen eginkizunak:

Erregistro elektronikoa eginkizun hauek beteko ditu:

a) Erabiltzaileak emandako datuak berresteko eskaera.

b) Erabiltzaileak emandako dokumentazioaren Agiri Elektronikoa entregatzea, datu hauekin: bidaltzailearen identitatea, data, ordua, erregistro zenbakia eta entregatutako dokumentuen zerrenda. Baldin eta interesatuak Ziurtagiri Elektronikoa jasotzen ez badu edo jasotzen duen mezua igortzean errore edo akats baten berri ematen duen mezua bada, Erregistro Orokorra eskaera, idatzia edo komunikazioa jaso ez duen seinale izango da eta, hortaz, interesatuak beste une batean edo beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu beharko du.

c) Sarrera eta irteera idazpenak ipintzea, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/07 Legeko 25. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren arabera.

d) Fitxategiak ezarritako formatuetan eransteko aukera. Interesatuak emandako dokumentuak eta irudiak Beasaingo Udaleraiko baliozko formatu eta estandarretara egokitu beharko dira. Egoitza elektronikoa, formatu eta estandar horien zerrenda eguneratua argitaratuko da.

e) Jakinarazpen elektronikoa seguruak egitea, erregistro elektronikoen bidez tramitatzen diren prozeduretan.

f) Interesatuak erregistro elektronikoa bidez egindako eskaeren berri izatea.

9. artikulua. Eskaerak, idatziak eta komunikazioak erregistro elektronikoa aurkeztea.

1. Hiritarrek une oro aukera dezakete Beasaingo Udalarekin harremanetan jartzeko modua, bitarteko elektronikoa bidez izan ala ez, Lege mailako arau batek bitarteko ez elektronikoa bat erabiltzea ezartzen duen kasuetan izan ezik. Bitarteko bat edo bestea erabiltzeak ez du hiritarra lotesten; edozein unetan, hasieran aukeratutako ez beste bitarteko bat aukera dezake.

2. Beasaingo Udalak bitarteko elektronikoa erabiliko ditu hiritarrekiko komunikazioetan, hiritarrek espresuki hala eskatu edo baimendu badute betiere. Eskaera eta baimena bitarteko elektronikoa bidez igorri eta jaso ahal izango dira.

3. Ondorio berdina du erregistro elektronikoa eskaerak, idatziak eta komunikazioak aurkezteak eta Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Komunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan onartutako beste bitartekoetatik aurkezteak.

4. Erregistro Orokor Elektronikoa prestatzeak, horren bidez prozedura bateko eskaerak, idatziak eta beste dokumentu batzuk aurkezteko eta dokumentu ofizial zehatzak ateratzeko, ez du esan nahi jardura horiei dagozkien prozedurak onartuta daudenik eta/edo osorik elektronikoki tramita daitezkeenik.

5. Eskaerak, idatziak, kontsultak eta komunikazioak elektronikoki aurkezteko, sistema informatikoa aukera hori eskainiko die interesatuei, eskaera eredu orokor bat edo berezi bat emanez; ereduetan, nahitaez bete beharreko eremuak egongo dira.

Beharrezkoa izango da ereduak erabiltzea, sistemak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko.

10. artikulua. Hartzea.

1. Eskaerak, idatziak eta komunikazioak erregistro elektronikoa aurkeztu daitezke urteko edozein egunetan eta eguneko edozein orduan. Erregistro elektronikoa Espainiako data eta ordu ofizialek gobernatuko dute. Nola data hala ordua erregistrora sartzeko helbide elektronikoa agertuko dira. Erregistro elektronikoa, ordu ofiziala penintsulari eta Balear Uharteei dagokiena izango da.

2. Mantentze lan tekniko edo operatiboetarako arrazoi justifikatuak daudenean soilik etengo da eskaerak, idatziak eta komunikazioak hartzea, eta behar den denboran bakarrik. Etena erregistroko erabiltzaile izan litezkeenei lehenbailehen jakinaraziko zaie. Erregistro elektronikoa ustekabeen eteten denean, eta ahal bada, erabiltzaileak mezu bat ikusiko du, gorabehera horren berri ematen dioten mezua, ahal bada betiere.

3. Erregistro elektronikoa ziurtagiri bat igorriko du, automatikoki; idatzi, eskaera edo komunikazioaren kopia egiaztatuta, aurkezpen data eta orduarekin eta erregistroko sarrera zenbakiarekin.

4. Erabiltzaileari ohartarazi beharko zaio berrespen mezurik jasotzen ez badu edo jasotzen duen mezua igortzean errore edo akats baten berri ematen duen mezu bat bada, dokumentua jaso ez duen seinale izango dela eta, hortaz, beste une batean edo beste bitarteko batzuen bidez aurkeztu beharko duela.

5. Organo jardulea identifikatu ahal izango da aplikazioan instalatutako ziurtagiri elektronikoa batekin sortutako sinadura aurreratuaren bidez. Sinadura horrek bermatzen du hori daramaten dokumentu administratiboak egiazkoak eta zuzenak direla.

6. Erregistro Orokorren unitate arduradunak jasotako tramite eta/edo dokumentu elektronikoa guztiak berrikusi, kudeatu eta/edo dagokion unitate administratibo, organismo edo erakundeari bidaliko dizkio.

7. Dokumentu elektronikoa Erregistro Orokorrean igorri edo jasotzean gertatzen diren zalantzak edo desadostasunak dokumentu elektronikoa tramitatu behar duen administrazio unitateak edo erakunde eskudunak argitu behar ditu.

8. Erregistro elektronikoa atzera bota ahal izango ditu aurkezten zaizkion dokumentu elektronikoa, baldin eta

- a) dokumentuak Erregistroaren eremu materialaz kanpoko organo edo erakundeei zuzenduta badaude;*
- b) kode maltzurra edo sistemaren zuzentasuna edo segurtasuna kaltetu dezakeen gailua badute; eta*
- c) dokumentu normalizatuak erabiltzen direnean, eskatzen diren eremuak betetzen ez badira edo tratatzea galarazten duten inkongruentziak edo ez-aipatzeak badituzte.*

9. Aurreko atalean aurreikusitako kasuetan, dokumentua bidaltzen duenari jakinarazi beharko zaio dokumentua atzera bota zaiola, adieraziz dokumentua atzera botatzeko arrazoiak eta, ahal denean, hutsuneak konpontzeko moduak eta zein helbidetan aurkez daitezkeen. Interesatuak eskatzen duenean, justifikazioa bidaliko zaio, aurkezten saiatu dela egiaztatzeko eta atzera botatzeko arrazoiak adierazteko justifikazioa hain zuzen.

10. Atal hauetan adierazitakoak ez du beste baten izenean jarduten ari dela egiaztatu beharretik salbuesten, a priori edo administrazio organoek eskatuta, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Komunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

11. artikulua. Zenbaketak

1. Erregistro elektronikoa eskaerak, idatziak eta komunikazioak aurkeztu eta jasotzerakoan eta erregistro horrek idatziak eta jakinarazpenak igortzerakoan, irizpide hauek erabiliko dira lanegunetan ezarritako epeak zenbatzeko:

a) Erregistrorako eta erregistroaren erabiltzaileentzako jaiegun izango dira bakarrik Estatu osoan hala erabakitzen direnak jaiegunen urteko egutegian. Jaiegun izango dira, baita ere, hala erabakitzen direnak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Beasaingo udalerrian, herriko festa moduan.

Urte bakoitzeko jaiegunak ezagutu nahi dituztenek www.beasain.net udal atariko "Udala > Lan egutegia" atalera sartu beharko dute.

b) Erregistro elektronikoa erabiltzeko jaiegun diren egunetan jasotako eskaerak, idatziak eta komunikazioak hurrengo laneguneko lehen orduan aurkeztu direla ulertuko da. Halakoetan, sarrera idazpenean benetan hartu zen eguna eta ordua inskribatuko dira; sarrera data eta ordua hurrengo laneguneko zero ordu eta segundu bat izango dira.

c) Erregistro elektronikoa ez du jaiegunetan egingo idatzien eta komunikazioen irteera idazpenik.

2. Epea betetzat emango da, epe barruan tramitazioa hasi eta arrakastaz amaitzen bada.

12. artikulua. Dokumentuen formatua

Bidaltzen diren dokumentuak irakurtzea eta tramitatzea errazagoa izan dadin, ondorengo dokumentu formatuak erabiltzea gomendatzen da: .doc, .xls, .ppt, .pdf, .rtf, .sxw, .abw, .jpg, .bmp, .tiff, .dxf, .dgn eta .dwg.

Formatu horiek konprimituta ere aurkez daitezke, .zip edo .rar formatuan.

13. artikulua. Birus informatikoen presentzia.

Dokumentuak irakurketa zaildu edo galarazi dezaketen birus informatikorik gabe bidaliko dira, eta interesatuen ardurara da hori horrela izan dadin bermatzea.

Nolanahi ere, dokumentu batean birusa egoteagatik bakarrik ez da dokumentua baliogabe bihurtuko, dokumentuaren edukia eskura badaiteke betiere.

III. KAPITULUA Jakinarazpen elektronikoak

14. artikulua. Eremua

Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez bidaliko zaizkie interesatuei, horiek espresuki hala eskatzen dutenean, beren eskaeran, idatzian edo komunikazioan jakinarazpenak, ahal izanez gero, posta elektronikoz jaso nahi dituztela adieraziz edo, Beasaingo Udalaren proposamenez, bitarteko hori onetsiz. Bitarteko elektronikoa erabiltzea nahiago dutela adieraztea eta baimentzea bitarteko elektronikoen bidez egin daitezke.

Prozedura tramitatu bitartean interesatuak Beasaingo Udalari eskatu ahal izango dio etorkizuneko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez ez egiteko eta Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Komunaren Erregimen Juridikoari

buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.artikuluaren edo Zergei buruzko abenduaren 28ko 230/1963 Lege Orokorreko 105. artikuluan onartutako bitartekoak erabiltzea, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 27.6. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

15. artikulua. Jakinarazpen oharra

Erregistro elektronikoaren aplikazio informatikoak ohar bat bidaliko du interesatuak emandako helbide elektronikora, jakinarazpen postontzian jakinarazpen bat duela adierazteko.

Artikulu honetan aurreikusitakoa eraginkorra izan dadin, edozein espedientetan bitarteko elektroniko bidez jakinarazpenak jaso nahi dituzten interesatuak horretarako konfiguratutako helbide elektronikoa izan behar dute eta helbide hori bakarra izango da Beasaingo Udalak eta horren organismo publikoek egin beharreko jakinarazpen guztietarako.

Helbide elektronikoa mugagabe indarrean egongo da, titularrak atzera botatzea eskatzen ez badu, pertsona fisikoa hil delako edo nortasun juridikoa amaitu delako, ebazpen administratibo edo juridiko batek horrela agintzen ez badu edo hiru urtez jakinarazpenetarako erabiltzen ez bada. Halakoetan, helbide elektroniko bakarra deskonfiguratu egingo da eta gorabehera hori interesatuari jakinaraziko zaio.

Erregistro elektronikoan hasitako espedienteetan dagokienez interesatuak eragiten dieten jakinarazpenak benetan egiteko, interesatu bakoitzari postontzi zehatza eta bakarra konfiguratuko zaio, Beasaingo Udalak eta horren organismo publikoek egin beharreko jakinarazpen guztietarako.

Jakinarazpenen postontziak eduki beharko ditu:

- a) egiaztapen mekanismoak, erabiltzailearen nortasuna bermatzeko;*
- b) kodeketa mekanismoak, datuen konfidentziasuna babesteko; eta*
- c) legez edo arauz ezar daitekeen beste edozein mekanismo.*

Jakinarazpen Elektronikoak egoera hauetan egon daitezke:

- a) Eskura. Interesatuak jakinarazpena postontzian jaso du eta eskura dauka, onartu, irakurri edo atzera bota dezan.*
- b) Irakurrita. Interesatuak jakinarazpena eskuratu du eta zuzen irakurri du. Jakinarazpen sistemak jakinarazpena eskuratu den eguna eta ordua egiaztatzea ahalbidetuko du. Une horretatik aurrera, jakinarazpena gauzatu dela ulertuko da, ondorio legal guztietarako.*
- c) Baztertuta. Interesatuak bere postontzira sartu, baina jakinarazpen hori ez irakurtzea erabakitzen du espresuki. Jakinarazpen sistemak jakinarazpena eskuratu den eguna eta ordua egiaztatzea ahalbidetuko du. Une horretatik aurrera, jakinarazpena gauzatu dela ulertuko da ondorio legal guztietarako.*
- d) Automatikoki baztertuta. Jakinarazpen administratiboen baliozkotasunaren legeak ezartzen dituen 10 eguneko epea igaro eta interesatuak ez du irakurri jakinarazpena edo atzera bota du. Halakoetan, jakinarazpena atzera bota dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992ko legearen 59.4 artikuluan eta konkordantzia duen arauetan esaten duen efektuekin, ofizioz edota interesatuaren hala eskatuta sartzeko arazo tekniko edo materiala izan duela konprobatzen bada ezik.*

Interesatuak eta horrek espresuki baimendutakoek jakinarazpena eskuratu ahal izango dute, aitortutako sinadura elektronikoaren ziurtagiriaren bidez identifikatu ostean.

IV. KAPITULUA Dokumentu elektronikoak

16. artikulua. Dokumentu elektronikoak

- 1. Dokumentu elektronikoak baldintza hauek bete beharko dituzte, baliozkoak izateko:*
 - a) Edozein motatako informazioa edukitzea.*
 - b) Informazioa artxibatzea, euskarri elektroniko batean, formatu zehatz eta ezagun bateko euskarriak hain zuzen.*
 - c) Bereiztea ahalbidetzen duten identifikazio datuak edukitzea, nahiz eta maila handiagoko espediente edo dokumentu elektroniko batetan sartu.*
- 2. Dokumentu administratibo elektronikoak, baldintza horiek betetzeaz gain, elektronikoki igorri eta sinatu behar dira, 11/2007 Legeko 18 eta 19. artikuluetan aurreikusitako sinadura sistemen bidez. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako baliozkotasun baldintzak bete behar dituzte.*
- 3. Dokumentu Administratibo Elektroniko edo interesatuak igorritako dokumentu baten kopia elektronikoa egin eta kopia hori benetako kopiatzat hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:*
 - a) Beasaingo Udalak jatorrizko dokumentu elektronikoa edukitzea; eta*
 - b) sinadura elektronikoaren informazioak eta, egonez gero, denbora zigiluak jatorrizkoarekin bat datorrela egiaztatzeko aukera ematea.*

17. artikulua. Dokumentu ez elektronikoetatik lortutako dokumentu elektronikoak

- 1. Beasaingo Udalak paperean edo digitalizatu daitezkeen beste euskarri batzuetan dauden dokumentuen kopia elektronikoak egin ditzake.*
- 2. Beasaingo Udalak igorritako dokumentuen eta interesatuek emandako dokumentu pribatuen kopia elektronikoak egin daitezke.*
- 3. "Irudi elektronikoa" esaten zaio paperean edo irudi fidela sortzea ahalbidetzen duen beste edozein euskarritan dagoen dokumentu bat digitalizatzearen emaitzari. "Digitalizazioa" esaten zaio papereko edo euskarri ez elektroniko bateko dokumentu bat fitxategi elektroniko bihurtzen duen prozesu teknologikoari. Fitxategi elektroniko horretan, dokumentuaren irudi fidela eta osoa dago.*
- 4. Irudi elektronikoak benetako kopia elektronikoak izango dira, Beasaingo Udalak baldintza hauek betetzen baditu:*
 - a) Kopiatutako dokumentua jatorrizkoa eta benetako kopia izatea.*
 - b) Kopia elektronikoak baliozko sinadura elektronikoa izatea.*

18. artikulua. Interesatuek kopia elektronikoak lortzea

Hiritarrek eskubidea dute interesatu diren prozeduretan parte diren dokumentu elektronikoen kopia elektronikoak lortzeko, dagokion prozedura arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Kopia interesatuaren kontura lortuko da, eta justifikanteen edo dokumentuen laburpen bat egin daiteke edo interesatuari eragiten ez dioten datuen konfidentzialtasuna mantentzea ahalbidetzen duten beste metodo elektroniko batzuk erabili.

19. artikulua. Dokumentuen fitxategi elektronikoa

- 1. Beasaingo Udalak formatu elektronikoan gordeko ditu espediente administratibo baten parte diren dokumentu elektroniko guztiak eta, baita ere, araututako prozedura administratibo baten parte izan ez arren, Udal eta hiritarren arteko harremanen ebidentzia diren beste dokumentu batzuk.*
- 2. Dokumentu elektronikoak batera gorde daitezke edo horien informazioa datu-base batean sartuta. Horretarako, eta datu horien sinadura elektronikoa egiaztatzeko, dokumentuen jatorri diren inprimaki edo eredu elektronikoak berregingo direla bermatuko da.*
- 3. Erakunde administratibo bakoitzak zehaztuko du zenbat denboraz gordeko diren, administrazio prozeduraren arabera, eta balio historikoa duen dokumentu ondarea mantentzeko buruzko arau orokorrak aplikatuko zaizkie.*
- 4. Artxibatutako dokumentu elektronikoak kontserbatu, eskuratu eta irakurri ahal izango direla bermatzeko, dokumentu horiek kopiatzeko buruz momentuan indarrean dauden arauen arabera, hainbat jardura egin daitezke: migrazio eragiketak, emulazioak eta dokumentu elektronikoak bihurtzea.*

V. Kapitulua. Espediente elektronikoa

20. artikulua. Espediente elektronikoa

- 1. Espediente elektronikoak diseinatuko dira prozedura bakoitzean lege aurreikusitako tramite administratiboei eta horiek Beasaingo Udalean duten aplikazio espezifikoari jarraituz.*
- 2. Espediente elektroniko bakoitzak kode bat izango du, identifikatu ahal izateko. Administrazio arteko trukea errazten duten sistemak erabiliko dira, ahal den neurrian.*
- 3. Espediente elektronikoak dokumentu elektroniko osatuta egongo dira; beste espediente elektroniko batzuk ere eduki ditzakete, prozedurak hala eskatzen badu. Baldin eta, salbuespenez, espedientera sartu beharreko dokumentu jakin batzuen izaera edo luzera dela-eta dokumentu horiek espedientean sartzea zaila gertatzen bada, espedientearen aurkibidean sartu beharko dira, aparte aurkeztu daitezkeela ahaztu gabe.*
- 4. Espediente elektronikoan sartzen diren dokumentuak iraupen luzeko eta erabiltzaile guztiek doan erabili ditzaketen tresnen bidez eskuratzeko moduko formatu edo formatuetara egokituko dira.*

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, erregelamendu hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu ostean eta lege bereko 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalaren Administrazio Elektronikoa Erregelamendu honek arautuko du, eta, erregelamenduan aurreikusten ez diren kasuetan, 11/07 Legea eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak aplikatuko dira.

HIRUGARRENA.- Erregelamendu hau Beasaingo Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da: <http://www.beasain.net>."

5.- TARIFAK. Euskaltegi, bertso-eskola eta ludotekaren tarifei hasierako onespena ematea, 2009-2010 ikasturterako.

Alkateak, proposamenaren berri eman du:

"GAIA: Bertso Eskolako eta Berritsu-Txelotxe ludoteken zerbitzuengatik 2.009-2.010 ikasturtean aplikagarri izango diren tasen onspena.

Hazienda Batzordeak 2.009ko maiatzaren 12an egindako bileran, Euskara Batzordeak proposatutakoaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egitea erabakitzen du:

1.- BERRITSU ETA TXELOTXE LUDOTEKEN ZERBITZUA

Zerbitzua irailetik ekainera emango da.

Ikasturte honetan 2008-2009ko tasari (60€) apirileko EAEko Kontsumorako Prezioen Indizea gehituko zaio bi ludoteketan.

2010eko urtarrilean ireki liteke matrikulaldia, horretarako, Udalak baimena eman behar du. Garai horretan matrikulatzen direnei, urte osoko matrikularen erdia kobratuko zaie.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteek ez dute ludotekako tasarik ordainduko. Gizarte Zerbitzuek ziurtatuko dute partaidetza hori

2.- BERTSO ESKOLA

2009-2010 ikasturtean, 30 euroko tasa kobratuko da."

"GAIA: Beasaingo Udal Euskaltegian 2.009-2.010 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onspena.

Hazienda Batzordeak 2.009ko maiatzaren 12an egindako bileran, Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egitea erabakitzen du:

1.- 2.009-2.010 ikasturtean Udal Euskaltegiak emango dituen ikastaroen orduko prezioa, indarrean dagoen 1,20 € orduko prezioa oinarri hartu eta Autonomi Erkidegoko apirileko KPIarekin eguneratzetik ondorioztatzen dena izatea.

2.- Materialaren prezioa eta tarifak kobratu eta aplikatzeko gainontzeko baldintzak mantentzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- EDUKIN EKONOMIKOA DUTEN BETEBEHAR ETA ESKUBIDEAK BERTAN BEHERA UZTEA.

Alkateak, proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Eduki ekonomikoa duten betebehar eta eskubideak bertan behera uztea.

Kontuhartzailletza eta Gordailuzaintzak aurreko ekitaldietatik kobratzeke eta onarturik dauden 36.780,16 euroko obligazioak eta ordaintzeke eta onarturik dauden 28.835,24 euroko eskubideak deuseztatzeko egindako proposamena aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak 2.009ko maiatzaren 12an egindako bileran Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egitea erabaki du:

Lehenik.- Hasierako onespina ematea kobratzeke eta ordaintzeke dauden aurreko ekitaldietako onartutako obligazio eta eskubideak bertan behera uzteko proposatutako espedientea.

Bigarren.- Hamabost egunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman erabaki hau, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez bada, behin-betikotzat hartuko da erabaki hau.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- KREDITU ALDAKETA. Kreditu gehigarrien modalitatean, kreditu aldaketa.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko

bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egunoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos
1.1000.933.010.00.03	Epe luzera jasota maileguen amort.: 2008ko FFFM / Amortiz. Préstamos a largo plazo: FFFM 2008	0,00	482.577,00	482.577,00
GUZTIRA / TOTAL		0,00	482.577,00	482.577,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Baliabidearen partziala / Parcial del recurso
2.0000.870.000.00.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko gerakina / Remanente financiación de créditos adicionales	482.577,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		482.577,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da ondorengo erabakia.

1.- 4. Kreditu gehikuntzen bidez 482.577,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behinbetirako onartutzat emango da.

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2009ko martxoaren 31tik maiatzaren 11 bitarte Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2009ko martxoaren 31tik maiatzaren 11 bitarte Alkateak emandako ebazpenak.

PREMIAZKO PUNTUA

Bildutakoek aho batez onartu dute, ondorengo premiazko puntua tratatu eta ebaztea.

“Gaia : eskubide eta betebeharrak eskualdatzea.

Beasaingo Udala, Manufacturas Olanen eta Promotora del Goierri, S.A.aren artean 2002ko abenduaren 20an sinatutako hitzarmenaren 8. klausularen arabera, azken sozietate honek 20-21 babes ofizialeko etxebizitzetarako den lursaila Udalari besterendu behar dio, 120.202 €ko prezioan.

Promotora del Goierri, S.A.k, 2009ko maiatzaren 12ko erregistroko sarrera data duen idatziaren bitartez, baimena eskatzen du aipatutako betebeharra eskualdatzeko.

Bestalde, Udalak terrenoa eskuratu eta gero Beasain Lantzen, S.A.aren izenean jartzeak, entitate honen helburuetako bat babes ofizialeko etxebizitzak sustatu eta eraikitzea delako, Udalarentzat esfortzu administratibo eta ekonomiko handiagoa suposatuko luke.

Xehetasun hau ebazteko eta aldi berean Promotora del Goierri, S.A.k egindako eskaerari erantzuna emateko, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako hitzarmenaren zortzigarren klausulan aurreikusitako eskubide eta betebeharra Beasain Lantzen, S.A.ri eskualdatzea.

Bigarren. Erabaki honen berri, Beasain Lantzen, S.A. eta Promotora del Goierri, S.A.ri ematea, lehenbailehen, eta 4 Areako errepartzelazio proiektutik ondorioztatu eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteko diren lursailen salerosketa eskritura formalizatzeko. Lursailak hauek dira:

- P6 lursaila (12.651 finka, 2048 Tomoa, Libro, 226 Liburua, 72 Orrialdea).
- P7 lursaila (12.652 finka, 2048 Tomoa, Libro, 226 Liburua, 75 Orrialdea)."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

PLACA ROTONDA AMBULATORIO

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): en el Pleno de abril de 2009, aprobamos por unanimidad el colocar una placa en la rotonda del ambulatorio. Queríamos saber cómo está el tema porque se ha inaugurado la rotonda y todavía no se ha colocado la placa.

KIOSKO DE LA PLAZA

En el Pleno del 2 de abril hicimos una consulta sobre el coste de la instalación del kiosko de la plaza. Se contestó que se precisaría el coste en la siguiente comisión de servicios, y como a día de hoy no se ha realizado ninguna comisión de servicios, nos gustaría saber si se nos puede dar el coste o no.

SOCIEDAD ARRIARÁN

Tenemos conocimiento de que el sábado 9 de mayo, tal y como dice HITZA, EL Alcalde estuvo en la inauguración de la sociedad de Arriarán y que al parecer, firmó algún tipo de convenio. Quisiéramos saber:

- 1º Si es cierto que se ha inaugurado la sociedad Intxaurpe.
- 2º Quien es el que ha hecho la invitación, porque a ver si el que costeadó el edificio no va a saber cuando se inaugura.
- 3º Quisiéramos saber si se ha recibido la subvención del Gobierno Vasco. que corresponde recibir a la Asociación.

FOLLETO DE BUZONEO DEL PNV

En el folleto que el PNV buzoneó el día en que el parlamento iba a cambiar de lehendakari, en uno de los apartados se habla de inversiones municipales, inversiones de la Diputación, inversiones del Gobierno Vasco y del Fondo Estatal, nos gustaría saber cuáles son las inversiones de la Diputación y del Gobierno Vasco. Las del Fondo Estatal, ya sabemos que son para el arreglo de aceras y de accesibilidad, pero las otras no.

RUEGO

A la altura del bar Txindoki, en la calle Jose Miguel Iturriotz, hace ya mucho tiempo, se quemó un contenedor de basura y sigue sin ser repuesto.

URBANIZACIÓN PLAZA ITURRALDE

Se está finalizando la urbanización de la plaza Joan Iturralde y sabemos que una los motivos de acabar para fiestas, es el poderla utilizar para la feria del ganado. Quisiéramos saber, si se va a autorizar la entrada de camiones a dicha plaza, cuando en una obra que está costando al municipio 890.000 €, sabemos que la instalación de la loseta, no ha sido sobre hormigón, sino sobre arena. Ello supone un riesgo, porque si se permiten ciertas cargas, antes de

haber pasado un año, puede estar deteriorado, tal y como nos está pasando con la plaza Barrendain.

Alkatea jaunak (EAJ): "Hay preguntas muy concretas que considero se pueden dirigir a los servicios correspondientes, pero bueno, estar ejerciendo un derecho que te corresponde.

Placa de la rotonda. Los del centro de cerámica lo están casi finalizando. Presentarán un boceto y elegiremos el que más nos guste.

Coste del kiosko. Todavía no se ha realizado. Te mandaré por escrito.

Sociedad Arriarán. El sábado 9 de mayo se celebró una fiesta en la Sociedad de Arriarán. Les dije que mandaran una invitación, y me dijeron que no iban a avisar oficialmente ni a los grupos políticos ni a la prensa. Fue una reunión familiar y el protocolo que firmamos, tiene que ser ratificado por la Junta de Gobierno.

Buzoneo del folleto PNV. Entiendo que tendría que responder el PNV, pero puedo decirte que en las inversiones de Diputación, se contemplan la rotonday el bidegorri desde el polideportivo hasta Salbatore. La ejecución de las VPO de Mariarats, sin embargo, es una actuación del Gobierno Vasco.

Está muy bien que con el dinero de todos, se estén haciendo obras financiadas con el fondo estatal, pero hay que tener en cuenta que otras instituciones desde siempre aportan a los municipios sus ayudas. Si es problema de celos...

Contenedor bar Txindoki. Juan Martin Aldareguia, presidente de la Mancomunidad Sasieta, informa que se está analizando la solución a adoptar, ya que los vecinos no quieren que se vuelva a poner en ese sitio el contenedor.

Feria del ganado. Este año no se va a celebrar en esa plaza, porque también los servicios municipales piensan que se puede poner en el puente de Bideluze.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): "Hay una contradicción en un tema. En su día se nos dijo que es una sociedad pública abierta a todos los ciudadanos de Beasain, pero en estos momentos se demuestra que es una sociedad totalmente privada, ya que ellos deciden quien entra y quien no y a quien se invita. Con ello se demuestra que el Ayuntamiento ha hecho una inversión en una entidad privada y cerrada. Nos parece mucho más injusto y estamos todavía mucho más convencidos de la posición en contra que tuvo el partido socialista.

Respecto al tema del folleto decir que no es que sean celos, pero las cantidades que se imputan vienen de cuestiones anteriores que no se han ejecutado. Nos hemos olvidado de una cantidad que no es pequeña, y es la

que se va a invertir en el TAV, aunque haya gente a la que no le interese, y ese dinero de algún sitio sale.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Ese dinero sale del concierto y cuando nos devuelvan el dinero del concierto, también se puede computar. La subvención para la sociedad Intxaurpe está aprobada y eso nos van a ingresar. Respecto del convenio decir, que es distinto ser privado que familiar y fue una fiesta familiar. En el convenio se pone que cualquier vecino del barrio tendrá derecho a ser socio y ser socio supone algunas condiciones porque ellos también han aportado algo. Si desde el principio cayó mal esta ayuda en cierto sector político, en este momento ratificamos que va a ser un éxito porque son más de cien socios que son del barrio y que la mayoría viven en Beasain.”

Josi Insausti jaunak (EA): “En relación a la revista municipal que publicamos quiero hacer una sugerencia y es que en lo sucesivo setenga más cuidado con las fotografías que se sacan sobre los usuarios de los servicios sociales. Pero esto sólo es una sugerencia, porque errores de este tipo los tenemos todos.”

Alkatea jaunak adierazi du argazkia atera aurretik baimena eskatu zitzaiela.

Josi Insausti jaunak (EA): “Aunque el usuario lo permita, luego están las críticas de la calle.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko hamarrak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.